

Gure Scape Room-aren kokapena Bilbon izango da, beraz, Bilboko edo gertuko pertsonentzat bideratuta egongo da. Baina aipatzekoa da, edozein gerturatu ahal izango dela. Gainera, bertoko elkarrekin eta ikastetxeekin lan egingo dugu, aliantzak eginez.

“Oparotasun inklusiboari buruzko nazioarteko lehen rankingaren aurkezpena Bilbon” artikuluan aipatzen den bezala, eta horregatik aukeratu dugu Bizkaiko hiriburua gure Scape Room-aren egoitza ezartzeko.

Gure bezeroen profila zehazteko bi irizpide ezberdin izango ditugu.

Alde batetik, adina kontuan izanda, 15 urte gorako pertsonentzat bideratuta dago. Adin tarte hain zabala denez, talde desberdinei ahal den heinean egokitzen saiatuko gara, partaide guztien trebetasun fisikoak, sentsozialak, kognitiboak eta bestelakoak kontuan izanik. Jolasaren bidez gai izango dira ikasteko eta aldi berean momentu dibertigarriak bizitzeko. Ihesbide Scape Room-a ezberdina da, erronkak taldekideei egokitzen baitira, parte-hartzaile guztiek jolasteko aukera izanik. Gainera, zailtasun mailak jokalarien esperientziaren arabera izango dira, eta hainbat komunikazio-estilo kontuan hartuko dira, hala nola sinboloen erabilera, Braille, zeinu-hizkuntza, etab. Horrela, guztiek taldean gozatu eta elkarlanean jardun dezakete, modu ekitatibo batean.

Bestalde, irizpide psikografikoa kontuan izango dugu, nortasuna, bizimodua esan nahi duela. Ihesbideren partaideen profilak mapa mentala irekitzeareko, bilakaera pertsonalareko eta gizarte inklusiboagoa eraikitzeo nahiarekiko konpromisoa islatzen du. Gure gizartean nagusi diren estereotipoei eta aurreiritziei aurre egiteko prest dauden pertsonak bilatzen ditugu, esan bezala, parte-hartzaileen mapa mentala irekitzeko eta sustatzen ditugun hezikidetzaren, aniztasunaren eta inklusioaren balioak besarkatzeko gai direnak.

Honako hauek erakarri nahi ditugu:

1. 15 urte edo gehiago duten pertsonentzat diseinatuta dagoen proiektua da.
2. Gogoia duten pertsonak.
3. Aniztasun funtzionala dutenak eta komunitate ulerkorrago eta solidarioago baten eraikuntzan aktiboki parte hartzen dutenak.
4. Konprometituta dauden pertsonak, garapena pertsonala eta gizartearen eboluzioa bilatzen dutenak, estereotipo normalizatuak hautsi eta gizarte-pertzepzioan aldaketa positiboa izan nahi dutenak.
5. Jokalariak, hasiberriak zein eskarmentudunak, talde-lana eta aniztasunari eta inklusioari buruzko hausnarketa sustatuko dituen esperientzia paregabearen interesatuta daudenak.

6. Scape Room desberdin batean murgildu nahi direnak, dibertitzeko ez ezik, ikuspegiak zabaltzeko diseinatuta daudenak.
7. Hezkuntza-erakundeak, aniztasuna duten pertsonen laguntzeko elkarteak eta jarduera inklusiboak bilatzen dituzten enpresak.

Gizarte-eraldaketarekin konprometituta dagoen publiko batengana jotzen dugu, etorkizun inklusioboago eta bidezkoagonbaterantz jotzeko prest dagoen batengana.